

KANBO HERRIA

Pirinio Atlantikoetako departamendua

ERABAKIEN AKTA

2021eko abenduaren 16ko

HERRI BILTZARRA

Bi mila eta hogeita bateko abenduaren 16an biltzera deiturik, herriko biltzarra Christian DEVÈZE, jaun auzapezaren lehendakaritzapean bildu da. Biltzarra arratseko 7etan hasi da.

Hor ziren: Christian Devèze auzapeza, Eliane Aizpuru, Jean-Noël Magis, Didier Irastorza, Marie Aristizabal, Robert Poulou, Christiane Hargain-Despéries, ordeak, Véronique Cadepond-Larronde, Peio Etcheleku (19:20tik goiti), Corinne Othatcegy (19:30 arte), Jean-Paul Eyherachar, Nicole Amestoy, Isabelle Ayerbe, Jean-François Lacosta, Maud Gastigard, Roger Barbier, Bernadette Remeau, Sébastien Carre, Carmen Gonzalez, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Amaia Beyrie, Lilian Hirigoyen, Alain Boscq, herri kontseilariak.

Ezin etorriak: Yolande Huguenard, Vincent Goytino, ordeak, Peio Etcheleku (19:20 arte), Corinne Othatcegy (19:30etik goiti), Jean-Jacques Lassus, Jean-Paul Alaman, herri biltzarkideak

Ahalordeak: Yolande Huguenard-ek Didier Irastorza-ri, Vincent Goytino-k Jean-Noël Magis-i, Corinne Othatcegy-k Eliane Aizpuru-ri (19:30etik goiti), Jean-Jacques Lassus-ek Véronique Cadepond-Larronde-ri, Jean-Paul Alaman-ek Philippe Bacardatz-i.

Saioko idazkariaren izendapena.

Biltzarkideek aho batez, Jean-Paul Eyherachar hautatu dute saioko idazkari izateko.

73 – Gaindegia etxe multzoko Lizarraga karrika itsuko lur sain baten eskuz aldatzea (Magis jaunak aurkeztua).

BC 130 lur sailaren jabe den Dupuy andereak jakinarazi du Gaindegia etxe multzoko Lizarraga karrika itsuko 7an duen jabegoaren ondoko oinezko xendera eskuratzeko nahia duela. Bide hori jabego pribatu batean bukatzen da.

Lur sail horretan euri uren hoditeria pasatzen denez, lur sail horretarako pasabide eta lanen egiteko behin-betiko eskubide bat agertuko da lur sailaren salmenta agirian. Gainera, zenbakitu behar den lur saila Gaindegia etxe multzoan kokatua denez, eskuz aldatzea baino lehen etxe multzoaren osaketa plano egokitu beharko da.

Etxe multzoko plano egokitzeko eta salmenta agirien egiteko gastuak eskaera egin duen herritarraren gain izanen dira.

Herri biltzarrari proposatu dio zenbakitu behar den 64 m²ko lur sailaren salmenta, hots Gaindegia etxe multzoko Dupuy anderearen jabegoaren ondoko oinezko bidexkari dagokiona, euro sinbolikoaren truke onartzea, Dupuy anderearen alde.

Aho batez onartua.

74 – Gaindegia bideko lur sailen eskuratzea: eremu publikora pasatzea eta sailkatzea (Magis jaunak aurkeztua).

Erreca anderea ados da BM 29 zenbakitu zen eta orain BM 138, 139, 140, 141 zenbakietan banatua den Gaindegia bideko lur sailak euro sinbolikoaren truke uzteko. Lur sail horien eskuratzea THPko 54. zenbakian erreserbatu kokalekuan egiten da.

Herri biltzarrari eskatu dio:

- Erreca andereari orotara 219 m²ko Gaindegia bideko BM 138, 139, 140 eta 141 sailak (lehengo BM 29) euro sinbolikoaren truke erosteko baimena,
- lur sail horiek eremu publikora pasatzearen alde bozkatzeko,
- Auzapezari baimena ematea eroste horretarako behar diren izapide guztien egiteko.

Aho batez onartua.

75 – «Nivaldia» jabegoaren salmenta (Magis jaunak aurkeztua).

Herriak 2021eko maiatzaren 20an lehentasunez erosteko eskubidea baliatu zuen, Kanboko Termetako arranparen 2.ean eta Ursuia etorbideko 5.ean okupatua ez den jabego eraikiaren salmentaren kariatara, Nivaldia Sarl enpresaren jabegoa hain zuzen. Lehentasunez erosteko eskubidea baliatu genuen SRU legeak inposatu helburuak betetzen laguntzeko, etxebizitza lagunduen ekoizpenari dagokionez. Honela Habitat Sud Atlantic-ekin hamabost bat etxebizitza lagundu sortuko dira, Herriak eskatu egingarritasun ikerketan oinarriturik.

Herria jabego horren jabe oso bilakatu zen 2021eko agorrilaren 11an Nivaldia Sarl-ekin salmenta agiria izenpetu zutenean, 540 000 €-ren truke.

HSA-ek diseinu eta eraikuntza lanak hasi ahal ditzan Herri Biltzarkideei eskatu die:

- Ursuia etorbideko 5. zenbakian eta Termen arranparen 2.ean okupatua ez den etxebizitza duen jabego eraikia HSA-ri 540 000 € ren truke saltzea onartzea, etxebizitza lagunduak egin ditzan. Jokoa diren lur sailak AW n°50, 51, 52, 53 eta 55 zenbakiekin dira eta orotara 18 396 m²ko azalera dute
- Auzapezari baimena ematea salmenta izenpe dezan,
- Auzapezari baimena ematea horretarako behar diren dokumentu guztien izenpetzeko.

Aho batez onartua.

76- Hilobi berrien salmenta prezioaren finkatzea (Auzapezak aurkezturik)

Herri Biltzarrari galdegin dio hilobi eta errauts hobi berrien salmenta prezioa finkatzea: 2 lekuko hilobi 1, 4 lekuko hilobi 1, eta 4 lekuko 5 errauts hobi

Honako prezioak proposatu ditu:

- 2 lekuko hilobia: 2 165 €

- 4 lekuko hilobia: 3 325 €
- Errauts hobiak: 655 €

Aho batez onartua.

77 – Animazio aretoa: erabilpen araudiaren eta prezioen onarpena (Cadepond-Larronde jaunak aurkeztua).

Herri biltzarrari eskatu dio Bernadette Jougleux animazio aretoaren erabilpen araudia eta aretoaren alokatzeko prezioen onartzea, azalpe ohar sintetikoan zehaztua denaren arabera.

Gehiengoz onartua.

Ez dute bozkatu: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Lilian Hirigoyen, Alain Boscq.

78 – 2022ko herriko prezioak (Auzapezak aurkeztua).

Herri biltzarrari eskatu dio 2022ko urtarrilaren 1etik goiti indarrean izanen diren herriko zerbitzuen prezioen onartzea, azalpen ohar sintetikoan aurkeztua den bezala.

Aho batez onartua.

79 – Liztor asiarraren kontrako borroka: herriaren diruzko parte hartzea (Auzapezak aurkeztua).

Biltzarkideei proposatu die herriak liztor asiarrak suntsitzeko gastuak bere gain hartzeko neurria luzatzea, interbentzio bakoitzeko 100 €ko gain-muga batekin, 2021ko urriaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra arte. Laguntza eskuratu nahi dutenek baimendua den enpresa baten faktura aurkeztu beharko dute.

Aho batez onartua.

Peio Etcheleku bilkura gelatik atera da

80 – Mixel Labeguerie'ren Lagunak elkarteari dirulaguntza (Auzapezak aurkeztua).

Herri Biltzarrari eskatu dio bere erabakia ematea « Mixel Labeguerie'ren Lagunak » elkarteari 3 000 €ko laguntza baten emateko, 2022ko martxoaren 6an Kanbon antolatuko duten kontzertu baten antolatzeko, Michel Labéguerie-ren (1921-2021) 100. urtemuga ospakizunen kariatara.

Gehiengoz onartua.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak ez du bozkatu.

Peio Etcheleku jauna gelan sartu da.

81 – Eссор Cycliste Basque bizikleta lasterketa: 2022ko hitzarmena (Irastorza jaunak aurkeztua).

Herri Biltzarrari eskatzen zaio auzapezari baimena ematea Eссор Cycliste Basque-ekin hitzarmena izenpetzeko. Lasterketa 2022ko otsailaren 6an iraganen da Kanbon. Kanbo lasterketaren abiapuntua izanen da eta antolatzaileei 3500 €ko laguntza baten emateari buruz deliberatzea ere eskatzen zaio.

Aho batez onartua.

82 – Korrika 2022 (Auzapezak aurkeztua).

Herri biltzarrari eskatu dio herriak Korrikan izanen duen diru parte hartzeaz erabakitzea:

- Korrikalaria iragarki euskarriaren erostea, zeinean herriaren ikurra eta izena agertuko diren, 150 €ren truke,
- Herriaren izenean kilometro baten erostea, 300 €ren truke.

Aho batez onartua.

83 – Aurrekontu nagusiaren 2. aldaketa erabakia (Aizpuru andereak aurkeztua).

Kontuan izanik 2021eko aurrekontuko lerro batzuk apalegiak direla, Herri Biltzarrari eskatzen zaio aurrekontu nagusiaren 2. aldaketa erabakia onartzea, azalpen ohar sintetikoan aurkeztua denaren arabera.

Aho batez onartua.

84 – Finantzak: ez ohiko amortizazio eta inbentarioen egitea M57 prozedurara igaro aitzin (Aizpuru andereak aurkeztua).

2022ko urtarrilaren 1ean M57 kontularitza nomenklaturara pasatzea dela eta, Herri biltzarrari eskatu dio Finantza Publikoetako kontulariari baimena ematea amortizazioen zuzkidurei buruzko eragiketen egiteko, azalpen ohar sintetikoan azaldua denaren arabera.

Aho batez onartua.

85 – Inbertsio gastuetarako aurretiazko kreditu lerro baten irekitzea (Aizpuru andereak aurkeztua).

Herriak hainbat inbertsio programa bideratu zituen 2021 urtean, eta hauen ondorioz 2022an kontratuzko eta diruzko engaiamenduak gelditzen zaizkigu. Alta, 2022 hasieran hartu finantza engaiamenduak kontularitza ikuspegitik ezin ditugu gauzatu, inbertsiorako kredituak 2022ko hasierako aurrekontuan ireki ez diren artean.

Herri biltzarrari eskatu zaio, azalpen txostenean agertzen den bezala, 2020ko inbertsio gastuetarako kredituak 2022ko hasierako aurrekontuko kredituen %25eko heinean aurretiaz irekitzea.

Gehiengoz onartua.

Kontra bozkatu dute: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aiçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Lilian Hirigoyen, Alain Boscq.

86 – Langilegoa: enplegu baten sortzea (Auzapezak aurkezturik).

Herri biltzarrari eskatu dio Arnagako berdeguneen zaintzeko denbora osoko teknikari orde enplegu bat sortzearen alde bozkatzea.

Aho batez onartua.

87 – Pirinio Atlantikoetako Departamendua eta Errobi kolegioaren arteko hitzarmena (Aristizabal andereak aurkeztua).

Herri biltzarrari eskatu dio Auzapezari baimena ematea hiruko hitzarmen baten izenpetzeko Pirinio Atlantikoetako Departamendua eta Errobi Kolegioarekin, 2022ko asteazkenetan aisialdi gunean egoten diren ikasleentzako bazkarien hornitzeko.

Aho batez onartua.

88 – Euskal Elkargoa: pertsona elbarrituek harrera fisiko eta telefonikora sarbidea ukateko hitzarmena (Amestoy andereak aurkeztua).

Herri biltzarrari eskatu dio Euskal Elkargoaren pertsona gor eta entzumen urrikoentzako harrera zerbitzua eskura ezartzeko hitzarmenaz erabakitzea, eta Auzapezari baimena ematea erabaki horren gauzatzeko ekintza eta dokumentu guztien izenpetzeko.

Aho batez onartua.

89 – Euskal Elkargoa: Karga Transferituen Ebaluaketarako Tokiko Komisioaren (CLECT) txostenaren onarpena (Auzapezak aurkeztua).

Herri Biltzarrari eskatu dio 2021eko azaroaren 15ean CLECT-ak egin txostena onartzea, azalpen ohar sintetikoan aurkeztua denaren arabera.

Aho batez onartua.

90 – Euskal Elkargoa: aitzinamendu kontratua (Etcheleku jaunak aurkeztua).

2015eko azaroaren 30eko erabakiz, herria aitzinamendu kontratuaren urraspidean sartu zen eta 2016ko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31era arteko hitzarmena izenpetu zuen, horren helburua izanik herria euskara progresiboki txertatzen laguntzea, bere kabuz funtzionamendu elebiduna ukateko gaitasuna lortu arte.

Herri biltzarrari eskatu dio 2022rako aitzinamendu kontratu baten onartzea Euskal Elkargoarekin, aitzinamendu kontratu nagusia egin artean.

Aho batez onartua.

91 – Euskal Elkargoa: Euskara formakuntzentzako eskaera bateratuak (Etcheleku jaunak aurkeztua).

Euskal Elkargoak herriei proposatzen die euskara formakuntzetarako eskaera bateratuen taldean sartzea.

Euskal Elkargoa da talde horren koordinatzaile, eta Frantziako merkatu publikoen edo deialdien araudia segituz, formakuntza eskaintzen duten eragileen arteko hautaketa egiten du.

Herri biltzarrari eskatu dio Herria eskaera bateratuen taldean sartzea onartzea, eta auzapezari baimena ematea azalpen ohar sintetikoan aurkeztua den hitzarmena izenpetzeko.

Aho batez onartua.

92 – Euskal Elkargoa: Ur edangarriaren eta saneamendu zerbitzuaren 2019 kalitate eta prezioen txostena (Auzapezak aurkeztua).

Herri Biltzarrak ur edangarriaren eta saneamendu zerbitzuaren kalitate eta prezioei buruzko 2020ko txostena kide guztiei igorri zitzaizela baieztatzen du.

Aho batez.

93 – Euskal Elkargoa: hondakinen prebentzio eta kudeaketa zerbitzu publikoaren 2020ko kalitate eta prezioen txostena (Auzapezak aurkeztua).

Herri Biltzarrak hondakinen prebentzio eta kudeaketa zerbitzuaren kalitate eta prezioei buruzko 2020ko txostena kide guztiei igorri zitzaizela baieztatzen du.

Aho batez.

Auzapezaren erabakien komunikazioa (Auzapezak aurkeztua).

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2122-22 eta L.2122-23 artikuluen arabera, Auzapezak 2020ko ekainaren 11ko Herri Biltzarrak onartu dizkion eskumen delegazioen esparruan hartu dituen erabakien berri eman dio biltzarrari, azalpen ohar sintetikoan aurkeztua den bezala.

Solasgai guztiak landurik, saioa 21:56ean bukatu da.